

**GOBERNU JUNTAK 2017.06.13an EGINDAKO**  
**BILKURAKO AKTA**

**LEHENDAKARIA**

UNAI ELKORO OIANGUREN

ARETXABALETA

**BOKALAK**

JOSÉ MIGUEL URIBARREN AZPIAZU  
MARIA UBARRETXENA CID  
JUAN KARLOS GARITANO EZKURRA  
ELENA LETE GARCIA  
LANDER ARREGI INCHAUSTI  
IRAITZ LAZKANO GARITAONANDIA  
JOSÉ RAMÓN ZUBIZARRETA ALEGRÍA  
MIKEL BIAIN BERRAONDO

ARETXABALETA  
ARRASATE  
ARRASATE  
BERGARA  
BERGARA  
ELGETA  
ESKORIATZA  
OÑATI

**ETORRI GABEAK**

BEÑARDO KORTABARRIA OLABARRIA  
IBON ARRUPE ALDECOCEA  
OSCAR GARCÍA HORRILLO  
SABINO AZCARATE LETURIA  
ENEKA ZANKADA REMENTERIA  
IRATI ETXEBERRIA GABIRIA  
NEREA ZUBÍA BLAZQUEZ

ANTZUOLA  
ARRASATE  
ARRASATE  
BERGARA  
LEINTZ-GATZAGA  
OÑATI  
OÑATI

**BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA**

BELEN TXINTXURRETA IPARRAGIRRE

**JUNTAKO KIDE IZAN GABE ETORRIAK**

ANDER ELORTONDO BERGARETXE

Behin behineko kontu-hartzailea

Mankomunitatearen egoitzako bilera gelan, 2017ko ekainaren 13an, 12:30etan, Mankomunitateko lehendakaria, Unai Elkorro Oianguren jauna, mahaiburu dela, Gobernu Juntaren ohiko bilkura hasi da, goian aipaturikoak bertan direla.

## 1.- Aurreko bilkurako akta onartzea

Gobernu Juntak aho batez ONARTU DU 2017ko maiatzaren 16an egindako bilkura bereziko aktaren zirriborroa.

## 2.- ZERBITZU OROKORRAK

### 2.1.- Hainbat prezio publiko onartzea

Kontu-hartzailearen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Zabor bilketa zerbitzutik kanpoko eskari bereziak erantzun behar direneko lan bereziengatik ondorengo prezio publikoak onartzea:

<b>Pertsonal zerbitzuaren prezioa</b>				
<b>Prezioak €/ordua, BEZik gabe</b>				
<b>Kategoria</b>	<b>Eguna</b>	<b>Gaua</b>	<b>Jaieguna</b>	<b>Jaieguna gaez</b>
Gidaria	31,50 €	35,00 €	34,50 €	37,00 €
Peoi gidaria	27,50 €	30,00 €	31,00 €	34,00 €
Peoia	26,50 €	29,00 €	30,50 €	33,00 €

<b>Materialaren zerbitzuaren Prezioa</b>	<b>Unit.</b>	<b>Prezioa, BEZik gabe</b>
Atzeko kargako ibilgailua, 3500 pma 5 m3	€/ordua	6,00 €
Atzeko kargako ibilgailua, bi ardatz, 8 m3	€/ordua	11,00 €
Atzeko kargako ibilgailua, bi ardatz, 12 m3	€/ordua	14,00 €
Atzeko kargako ibilgailua, bi ardatz, 16 m3	€/ordua	15,00 €
Atzeko kargako ibilgailua, hiru ardatz	€/ordua	18,00 €
Kutxa irekiko ibilgailua, 3500 pma	€/ordua	3,00 €
Kutxa irekiko ibilgailua, bi ardatz, garabia-plataforma	€/ordua	8,00 €
Kutxa irekiko ibilgailua, hiru ardatz, garabia-plataforma	€/ordua	11,00 €
Alboko kargako ibilgailua	€/ordua	18,00 €
Goi ibilgailua, garabia-kakoa	€/ordua	15,00 €
Edukiontzia garbitzeko alboko ibilgailua	€/ordua	18,00 €
Alboko ibilgailu satelitea	€/ordua	6,00 €



Bi ardatzeko ibilgailua ampliroil	€/ordua	8,00 €
Hiru ardatzeko ibilgailua ampliroil	€/ordua	11,00 €
Ibilgailu arin elektrikoa eta antzekoak	€/ordua	1,00 €
Furgoia eta antzekoak	€/ordua	3,00 €
Ikuskapen ibilgailua eta antzekoak	€/ordua	2,00 €

2. Hondakin bilketarako hainbat material saltzeko gaur egungo prezio publikoak aldatzea, honela finkatuz:

10 Litroko edukiontzia	2,61 €
20 Litroko edukiontzia	5,32 €
40 Litroko edukiontzia	7,48 €
60 Litroko edukiontzia	37,62 €
80 Litroko edukiontzia	24,81 €
120 Litroko edukiontzia	24,81 €
240 Litroko edukiontzia	33,60 €
360 Litroko edukiontzia	51,30 €
1000 Litroko edukiontziak	157,85 €
10 litroko POLTSA konpostagarrien 20ko bobina	1,14 €
40 litroko POLTSA konpostagarrien 20ko bobina	3,68 €
120 litroko POLTSA konpostagarrien 20ko bobina	8,97 €
60 litroko POLTSA konpostagarrien 20ko bobina	6,86 €
Kaxa garraioa	4,61 €
Aparteko kaxa	1,03 €
Pedalak 120	21,58 €
Pedalak 1000	30,21 €
Sarrailak	23,74 €
Edukiontzi berrerabiliak	75,52 €
Edukiontzien euskarriak	174,25 €

Material erosketan banku helbideratze bitartez ordaintzen duenari %5eko hobaria aplikatuko zaio.

3. Hondakin bilketa komertzial eta industrialen edukiontzien fakturazioan kontu-hartzaileak proposatutako irizpideak onartzea.

## **2.2. Foru Kontratazio Zentrala**

### **Ibilgailuen aseguruak kontratatzeke espedienteari atxikitzea**

Mankomunitate honetako Gobernu Juntak, 2011ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Foru Kontratazioen Zentralak aurrera eramango duen eskuratze zentralizatuko sistemari atxikitzea erabaki zuen, horretarako Foru Aldundiarekin zegokion hitzarmena sinatuz.

Aipatu Zentralak, esparru-akordioaren prozedura bitartez, ibilgailuen aseguru polizak kontratatzeke espediente berria irekitzeko asmoa du.

Eta Mankomunitate honi kontratazio hau interesatzen zaionez, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Ibilgailuen aseguru polizak kontratatzeke Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralak irekitako esparru-akordioaren kontratazio espedienteari atxikitzea, 2011ko maiatzaren 18ko Gobernu Juntak onartutako hitzarmenean, eta 2011ko otsailaren 22ko 2011/3 Foru Dekretuan ezarritako eran eta baldintzetan.

### **Suteen aurkako babes eta segurtasuneko sistemak mantentzeko kontratu eratorriak esleitzea**

Diputatuen Kontseiluaren 2017ko urtarrilaren 10eko erabakiaren bidez onartu zen Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralaren bidez suteen eta intrusioaren aurkako sistemen mantenimendu zerbitzua kontratatzeke esparru akordioa burutzeko kontratazio espedientea.

Zegokion espedientea izapidetu ondoren, Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazio Departamentuko foru diputatuak, 2017ko martxoaren 30eko foru aginduaren bitartez, aipatu esparru akordioa ondorengo enpresekin burutzea ebatzi zuen:

- 1 lotea: sua itzaltzeko ekipoak: su itzalgailuak, BIEak, sute-ahoak eta zutabe lehorrak: BABESA SUZAI, S.A. enpresarekin.
- 2 lotea: suteen eta intrusioaren aurkako sistemak: SABICO SEGURIDAD, S.A. enpresarekin.

Mankomunitate honi dagokio orain, Foru Kontratazio Zentralak tramitatutako espedienteari atxikia dagoen erakundea den aldetik, eta zerbitzua interesatzen zaion neurrian, 2011ko otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuaren 6. artikuluekin araber, esparru akordiotik eratorritako kontratuak esleitzea, formalizatzea eta gastua baimentzea.

Behin esparru akordioa sinatu ondoren, Prebentzio teknikariak emandako txostenaren araber, aipatu zerbitzuaren beharra dela eta, proposatu du aipatu kontratuak, Esparru Akordioa burutzea erabaki den enpresa berari esleitzea eta hala formalizatzea.

Mankomunitate honek kontratatzea beharko duen zerbitzua zenbatetsiz, gutxi gorabehera, guztira urteko 2.845 euroko gastua ateratzen da, BEZ barne.

Hori dela eta, 2011ko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaz onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 198. artikuluari jarraituz, bidezkoa da eratorritako kontratuak BABESA SUZAI, S.A. enpresari (1 lotea), eta SABICO SEGURIDAD, S.A. enpresari (2 lotea) esleitzea, sinatutako Esparru Akordioan ezarritako baldintzetan.

Ondorioz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

**LEHENENGO.-** BABESA SUZAI, S.A. enpresari (1 lotea), eta SABICO SEGURIDAD, S.A. enpresari (2 lotea) esleitzea “Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez suteen eta intrusioaren aurkako sistemen mantenu zerbitzua kontratatzeako esparru akordiotik” eratorritako kontratu eratorriak, esparru akordioa burutzea erabaki den baldintzetan.

**BIGARREN.-** BABESA SUZAI, S.A. enpresaren alde (1 lotea) eta SABICO SEGURIDAD, S.A. enpresaren alde (2 lotea) baimentzea eta xedatzea aurtengo ekitaldiari dagokion gastua, 1.1000.211.920.00.01 kontusailaren kargura.

**HIRUGARREN.-** Enpresa esleipendunekin kontratuak formalizatzea.

**LAUGARREN.-** BABESA SUZAI, S.A. enpresari 78,68 €-ko aurreko kontratuaren bermea bueltatzea.

### **3.- HONDAKINEN KUDEAKETA**

#### **3.1.- Epeleko zabortegiko isurketa-gelaxkaren 2 fasearen itxiera partziala eta 3 fasearen sorreraren proiektua eta kontratazio espedientea**

HIRIGINTZA, S.A. enpresak idatzitako “Epeleko zabortegiko isurketa-gelaxkaren 2 fasearen itxiera partziala eta 3 fasearen sorreraren Proiektua” eta INSTRUMENTACIÓN GEOTÉCNICA Y ESTRUCTURAL, S.L. (INGE) enpresak idatzitako proiektu honi buruzko gainbegiratze txostena ikusirik.

Eta proiektu hau gauzatzeko obrak egiteko prozedura ireki bidez bideratu den kontratazio espedientea ere ikusirik.

Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Aipaturiko proiektua onartzea eta obra egiteko dagokion baimen-eskaera bideratzea Bergarako Udalaren aurrean.
2. Aipaturiko proiektua gauzatzeko obraren esleipenerako bideratu den kontratazio-espedientea onartzea.
3. Gastua onartzea, horretarako ondoren zehaztutako kredituak aldatzeko espedientea onartuz.
4. Kontratazio hau arautuko duten Administrazio Klausula Partikularren Agiria onartzea.

5. Dagokion esleitze-prozedura irekitzea.

“Kreditu gaikuntza bidezko kreditu aldaketaren 2017-KALD-000002-00 zenbakidun espedientea onartzea

Mankomunitate honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa.

Kontu-hartzaileak egindako txostena eta ziurtagiria aztertu dira. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 31. artikuluan ezarritakoarekin.

Gaia aztertu ondoren, Mankomunitateko Gobernu Juntak, bozketa egin eta gero, legezko gehiengoz, honako hau

**ERABAKI DU**

**Lehenengoa.-** Onartzea Mankomunitate honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

**GASTUAK**

Kap.	Izena	Euroak
1	PERTSONAL GASTUAK	41.000,00
6	INBERTSIO ERREALAK	200.000,00
<b>GAITUTAKO KREDITUAK GUZTIRA</b>		<b>241.000,00</b>

**SARRERAK**

Kap.	Izena	Euroak
4 (SARRERAK)	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	41.000,00
7 (SARRERAK)	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	200.000,00
<b>FINANTZAKETA GUZTIRA</b>		<b>241.000,00</b>

**Bigarrena.-** Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzailatza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa.

#### **4.- GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA**

##### **Enplegua eta Prestakuntza**

##### **4.1.- Enpresa Ekintzetarako Zentroa**

##### **Luzapena; A.D.G.eta J.L. (ATARI LAN)**

Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz eta Enpresa Ekintzetarako Zentroaren Araudian ezarritakoaren arabera, Gobernu Juntak, aho batez, ondorengo ERABAKI DU:

- Urtebetez, hau da, 2018ko ekainaren 11 arte, luzatzea Arrasateko Enpresa Ekintzetarako Zentroaren 4-ZM zerbitzu modulua erabiltzeko baimena, A.D.G. andreari emana, Gobernu Juntaren 2015eko maiatzaren 21eko erabaki bitartez.

##### **4.2.- Eskolatzeko Osagarriko Programa antolatu, kudeatu eta garatzeko kontratazio espedientea; eskaintza bakarra**

Mankomunitate honetako Gobernu Juntak, 2017ko apirilaren 11n egindako bilkuran, Eskolatzeko Osagarriko Programa antolatu, kudeatu eta garatzeko kontratazio espedientea, gastua eta Administrazio Klausula Partikularren eta Baldintza Teknikoen Agiriak onartu zituen eta esleitze-prozedura irekitzea erabaki zuen.

Horretarako emandako epean eskaintza bakarra aurkeztu da, eta onartu egin da, ARIZMENDI KOOP. Elkartearena.

Aurkeztutako eskaintzak ezarritako baldintza guztiak betetzen dituzenez, Kontratazio Mahaiaren proposamena jarraituz, Gobernu Juntak, aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. ARIZMENDI KOOP. Elkarteari hamar laneguneko epea ematea, Mankomunitatearen errekerimendu hau jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, 1. gutun-azaleko dokumentazioa, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela frogatzen duen dokumentazioa, laneko arriskuen prebentziorako dokumentazioa, eta behin betiko bermea aurkezteko.
2. Kontratu honen esleipena, dokumentazioa jaso ondorengo bost lanegunen barruan egingo da.

##### **4.3.- Mankomunitatearen lurralde-eremuan 16 eta 18 urte tarteko gazteen lan eta gizarte txertaketa errazteko programak garatzen dituzten onura publikoko erakundeei diru-laguntzak**

Gobernu Junta honek, Garapen Agentzia Batzordearen proposamena jarraituz, 2017ko urtarrilaren 17an egindako bilkuran, Mankomunitatearen lurralde-eremuan 16 eta 18 urte tarteko gazteen lan eta gizarte txertaketa errazteko programak garatzen dituzten onura publikoko erakundeei diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileei hasierako onepena eman zien.

Oinarri hauek jendaurrean jarri eta inolako erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ez zenez, behin betiko onartuta gelditu ziren, martxoaren 30eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz.

Mankomunitateko lehendakariak, 2017ko martxoaren 31ko ebazpen bitartez, 2017ko diru-laguntza deialdia onartu zuen, 19.000 €-ko gastua baimenduz, deialdi honi aurre egiteko. Deialdi hau apirilaren 6ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Eskaerak aurkezteko epean, eskaera bakarra aurkeztu da, ARIZMENDI KOOP. ELKARTEA-rena.

Deialdiaren 7. oinarria betez, Garapen Agentziako arduradunak, aipatu Elkarreak aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, bere balorazio txostena egin du, aurkeztutako eskaerak onuradun izateko ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela baieztatuz.

Arduradunaren txostena ikusirik, Garapen Agentzia Batzordeak ARIZMENDI KOOP. ELKARTEA-ri 19.000 €-ko diru-laguntza ematea proposatzen du.

Batzordearen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Mankomunitatearen lurralde-eremuan 16 eta 18 urte tarteko gazteen lan eta gizarte txertaketa errazteko programak garatzen dituzten onura publikoko erakundeei diru-laguntzak emateko 2017ko deialdiaren barruan, ARIZMENDI KOOP. ELKARTEA-ri 19.000 €-ko diru-laguntza ematea.

#### **4.4.- Lan orientazioa eta Enplegu Zentroa**

LANBIDEk, 2016ko diru-laguntza deialdiaren babesean, finantzatutako Enplegurako Orientazioko Ekintza programa garatzeko bi orientatzaileen lanaldi erdiko izendapenak uztailaren 5ean bukatzen direla jakinarazi da, eta aurten LANBIDEk ez duela oraindik atera deialdi berririk.

Bestalde, jakinarazi da Gipuzkoako Foru Aldundiak, "Etorkizuna Eraikiz" programaren barruan, Mankomunitateak Debegesarekin batera aurkeztutako "Gizarteratze Sarea" proiektua onartu duela, eta proiektu hau garatzeko bi orientatzaile beharko direla irailaren 1ean hasi eta abenduaren 31 arte.

Hau honela izanik, Gobernu Juntak ZERA ERABAKI DU:

- Orientatzaileen lan poltsa erabiliz, 2017ko irailaren 1etik abenduaren 31ra arte bi orientatzaile bitarteko funtzionario izendatzea, "Gizarteratze Sarea" proiektua garatzeko.

### **5.- LEHENDAKARITZA**

#### **5.1.- Lehendakaritzaren ebazpenak**

Lehendakariak ondorengo ebazpenen berri eman du:

**17/31.-** 17/10 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira EHUN ETA LAUROGEITA ZAZPI MILA BEDERATZIEHUN ETA HOGETA SEI EURO ETA BERROGEITA HIRU ZENTIMO (187.926,43 €).



**17/32.- Lehena.**- Udal honen 2016ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

#### DIRUZAINZTA GERAKINA

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2016-12-31n:		1.428.348,23
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2016-12-31n:		1.607.850,12
Aurrekontuko zordunak :	1.201.705,34	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	406.144,78	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2016-12-31n:		901.700,18
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	601.955,89	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	299.744,29	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Obra handietarako hornidura		131.670,48
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2+3):		2.002.827,69
5.- Saldo kobragaitzak:		37.075,18
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:		158.529,68
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):		1.807.222,83

#### AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	-489.710,70
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	-40.723,31
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	1.766.420,16
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	-158.529,68
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	1.077.456,47

#### KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	912.075,46
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	895.147,37
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):	1.807.222,83

**Bigarrena.-** Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

**Hirugarrena.-** Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

**17/33.-** 1.- M.A.E. kontratatzea maiatzaren 16an D.G. Garbiguneko zaintzailearen ordezkapena egiteko, sindikalgintzagatik. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

2.- J.R.A. eta J.E.I. kontratatzea, zamaketari bezala, maiatzaren 17tik aurrera Akeiko biltegia husteko. Zamaketari lanpostuari dagokion ordainsaria emango zaie.

3.- A.A.G. kontratatzea maiatzaren 23tik 26ra, zamaketari bezala, Balerion alboko edukiontzien muntatze lanak egiteko. Zamaketari lanpostuari dagokion ordainsaria emango zaio.

**17/34.-** S.C. langileari 5.409,12 €-ko mailegua ematea, 24 hilekotan itzuli beharko duelarik.

**17/35.-** Aitor Ugaldek egindako eskaera onartzea, bere lanaldiaren heren bateko murrizketa beste urtebetez luzatuz, hau da, 2018ko maiatzaren 31 arte.

**17/36.-** 17/11 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira LAU MILA LAUREHUN ETA HIRUROGEITA BAT EURO ETA LAUROGEITA ZORTZI ZENTIMO (4.461,88 €).

**17/37.-** 17/12 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira BOSTEHUN ETA LAUROGEITA HAMA MILA LAUREHUN ETA BERROGEITA HAMABI EURO ETA HIRUROGEITA HIRU ZENTIMO (591.452,63 €).

**17/38.-** 17/13 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira BEDERATZI MILA EHUN ETA HAMAZORTZI EURO ETA HAMAR ZENTIMO (9.118,10 €).

**17/39.-** 17/14 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira HOGEITA HAMAZORTZI MILA BOSTEHUN ETA LAUROGEITA HAMAZAZPI EURO ETA HIRUROGEITA ZAZPI ZENTIMO (38.597,67 €).

**17/40.-** 1.- M.A.E. kontratatzea maiatzaren 23an, 25ean, 26an, 30ean eta 31n, arratsaldean, M.S. Garbiguneko zaintzailearen ordezkapena egiteko, eta ekainaren 1etik 2018ko maiatzaren 31 arte, urtebetez, A.U. zaintzailearen heren bateko lanaldi murrizketaren ordezkapena egiteko. Lanpostu hauei dagokien ordainsaria emango zaio.

2.- J.T.L. kontratatzea maiatzaren 29tik ekainaren 2ra arte M.L. langilearen ordezkapena egiteko. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

3.- J.E.I. kontratatzea pioi bezala maiatzaren 29tik ekainaren 16ra arte Epeleko zabortegean sortutako lan pilaketari aurre. Zamaketari lanpostuari dagokion ordainsaria emango zaio.

4.- A.A.G. kontratatzea pioi bezala maiatzaren 29tik ekainaren 16ra arte Epeleko zabortegian sortutako lan pilaketari aurre. Zamaketari lanpostuari dagokion ordainsaria emango zaio.

5.- E.A.I. kontratatzea maiatzaren 31n D.G. Garbiguneko zaintzailearen ordezkapena egiteko. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

**17/41.-** J.R.A. kontratatzea ekainaren 1etik 30era arte Debagoieneko mendi ibilbide sarearen garbitze lanak egiteko, hileko 1.957,38 €ko ordainsari gordinarekin, aipatu lanak egiteko.

## **6.- GALDE-ERREGUAK**

- “Epeleko zabortegian zigilatu, gela berria ireki eta garbigunea egiteko proiektuko” lanen kontratua dela eta, CONSTRUCCIONES MURIAS, S.A.U. enpresak jarritako ondorengo apelazio-errekurtsoari buruzko Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiaren epaiaren berri eman du idazkariak:
  - Jarritako material geosintetikoaren kalitate-murrizketaren kuantifikazioa onartzeko, 88.017,12 €-koa, o Gobernu Juntaren erabakiaren aurka aipatu enpresak jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren Administrazioarekiko Auzien Donostiako 1. Epaitegiaren epaiaren aurkako apelazio-errekurtsoa.

Errekurtsoa bere osotasunean ezetsi da, CONSTRUCCIONES MURIAS, S.A.U. enpresari kosten erdia ordaintzeko zigorra ezarriz.

- Landerrek jakinarazi du Leintz-Gatzagako Udalari 300 € inguru ordainduko zaiola, ingurumen astea dela eta.
- Ez da segurua, baina hondakin bilketa kontratu berria esleitzeko beharrezkoa balitz, abuztuaren 29an, 12:30etan egingo da Gobernu Juntaren bilera berezi bat.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 14:00etan, bukatutzat eman da bilkura.